

Goi

Goierritarra aldizkaria

401 zenbakia 2011ko maiatzak 20



**OLABERRIKO
KUTTUNAK**



**10 ALDIZ
ZEGAMA
AIZKORRI**


ARGI
OPTIKA

zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarritzko osagaia

Ε Μ Ψ Ε

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain
T 943 88 31 10 www.argioptika.com

PRADA Salvatore Ferragamo CXTÉ ROMEO GIGI



faktore



ORDIZIA
OSASUN ZENTROA

Goierri kalea
Tel.: 943 164 048
Faxa: 943 164 703
20240 ORDIZIA

CORNAGO OLIVER Dr.
Ginekologia eta obstetrizia

Endokrinologiako eta
ginekologiako espezialista

Hilekoaren aldaketak,
kiste anitzeko obulutegia,
ile ugaritasuna,
kontrazeptzioa...

Ugalkortasun arazoak

Menopausia

Azterketa ginekologikoak

Haurdunaldiaren kontrola

4D ekografia



berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak



dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza teknikoak // laguntzen bideratzea



Etor Mendia

Epa Igor,

Hi bai bizi! Orain ere oporretan? Ze giro Berlin aldean? Bazebilkiagu zalaparta gure herri honetan. Batzuk futbol kontuekin eta beste batzuk politikarekin. Baina denok zekiagu kirola eta politika ez direla nahastu behar.

Futbolari begiratzuz bi modelo edo ikuspuntu desberdin antzeko emaitzarekin: alde batetik Errealak eta bere harrobien aldeko apustua (dirua izanez gero mantenduko ote likek?) eta bestetik Osasuna eta kanpoko fitxaketen aldeko apustua. Eta paradoxikoki, Osasuna (entrenatzaile aldatetarekin) etxeko jokalarik bati aukera eman ziotekenean

Biolentziaren arazoa gatazkaren ekuaziotik kanpo geldituta, bakoitzaren ekintzak definituko die norberaren izaera.

erantzun bikaina ematen ari da. Ez ote dik lekurik Errealean Agirretxeren mailako jokalarik batek?

Eta politikan ere 2 eredu: urratsak eman eta aurrera begiratzeko diaganena konponbide baketsu baten alde; eta ukazioarena, ezer ez da nahikoarena. Lehenengo talde hori Sortzen saiatu gaituk, baina ezin. Halere orain gutxi arte bateraezinak ziruditean sentsibiltateak Bildu gaituk, eta urtetan bidelagun izan dituen beste batzuk, aldiz, kanpoan gelditu dituk. Bigarren taldean Euskal Herriaren izaera ukatzen zigutekenak. Eta ez zegok erdi biderik izan edo ez izan honetan. Azken urteetan aitzakia izan deken biolentziaren arazoa gatazkaren ekuaziotik kanpo geldituta, bakoitzaren ekintzak (eta ez kanpainako hitzek!) definituko die norberaren izaera.



Igor Bueno

Epa Etor, Berlin on bike! Prenzlauer Berg, Olympiastadion, Brandenburger Tor, Reichstag, Alexanderplatz, Mitte, Charlottenburg, Kreuzberg, Schöneberg, Friedrichshagen, Museuminsel, East Side Gallery... indarberiturik itzuli neok Berlindik!

Ingurukoek uste ditek oporretan izan neokela, baina bai zera! Neurea negozio bidaia izan duk. Halere etzekiatpa, etzeukeat guztiz argi eta beste bidaia pare bat egin beharko dizkiat esku artean dabilkidan ideia bikaina gartzeko, horra! Horretarako ordea, lehenik 'lan onari saria' irabazi beharko diat, beste pixkat aurreztu, eta kitto!

Bo, astebete baino ez diat egin kanpon eta itzuli naizen postontzia paperez betea aurkitu diat. Hauteskundeak, jakina! Promesak eta proiektuak! Eta bada non aukeratu! Nik aspaldi egin nian aukera, nire botoa efizientzia baliabideetan, jasangarritasuna mugikor-

Beasainen, alkatetzarako bi kirolariren

arteko lehia aurrikusten diat nik.

Gaztea bata, gazteagoa bestea.

tasunean eta askatasuna bakean gauzatuko dituenari.

Hemen, Beasainen, alkatetzarako bi kirolariren arteko lehia aurrikusten diat nik. Aitor batetik, Koldo bestetik. Gaztea bata, gazteagoa bestea. Esperientziaduna bata, berria bestea. Gainontzeko alkategaiak atzeraxeago ikusten dizkiat nik, eta bat edo beste urrun, agian oso urrun.

Igandea egun handia izango da, bai horixe! Batetik hauteskundeak, bestetik futbola. Bai Errealak, bai Osasunak azken partidaren erabakiko dute lehen mailan jarraitu edo ez, denboraldi osoa partida bakarrean!

Athleticek UEFarako sailkatzea lortu du, baina ez ote ditek 2004an egin zutena errepikatuko? Hau da, kamixeta politt-askoa diseinatu eta egun gutxira erretiratu itxusia zelakoan!

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierriar aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L.
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 775
Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Herrialdeko kandidatoen mugikortasun
elektoral, gogoan dudan pluralena
izan da oraingo honetan.



Joseba Imaz

Hauteskundeak, kotxetik piraguara

Erosiko al zenioke gizon honi bigarren eskuko autoa?”. Amerikako Estatu Batuetan, itaun hori erabili zuten Alderdi Demokratako kideek, John F. Kennedy buru zutela, Richard Nixon arerio errepublikarraren irudia zalantzan jartzeko. 1960ko hamarkada zen. Dagoeneko 50 urte igaro badira ere, galdera bera egiten jarraitzen dute ipar amerikarrek, presidente berria aukeratu behar dutenean.

Testu hau irakurlearen eskuetara iristerako, litekeena da azken hauteskundeak pasa izana. Batzuk pozik izango dira; beste batzuk, erdizka; tristeziak jota dagoenik ere ez da faltako. Ez noa, beraz, kotxearen galdera errepikatzen. Alferrik da honezkero automobil zaharra zeini erosiko pentsatzen jartzea. Beste gai batek nauka harritua. Zorionez edo zoritxarrez, kazetari moduan hauteskunde kanpaina jarraitzea tokatu zait aurtien. Nahikoa entzun, irakurri eta idatzi ditut bateko eta besteko politikarien promesak eta gaur, pasa diren bi astei begira, harrituta naukan gauza batean erreparatu nahi nuke.

Ez dakit Goierri aldean nabaritu duzuen, baina Donostian (han egiten da Gipuzkoako kanpainaren muina) behintzat garbi geratu da: Nixon egiten zioten galderak ez dauka zentzurik mende hasiera honetan. Hautagaiek jada kotxetik ez baitute erabiltzen. Orain nahiago dute beste tramankulu batzuk baliatzea.

Izan ere, herrialdeko kandidatoen mugikortasun elektoral, gogoan dudan pluralena izan da oraingo honetan.

EAJ hasi zen lehendabizi, Markel Olano beasaindarra buru zuela. Kanpainako autobus ofiziala aurkeztu zuen. Itxura serio-koa, berdez margotua. Ez ziguten esan, hala ere, Lurraldebuseko Txartel Bakarrarekin bertan bidaiatzerik baze- goen. Egun batzuk beranduago, Donostiako Udalerako Eneko Goia hautagai jeltzaleak ibilgailu deigarriago bat erakutsi zuen: tranbia urdin bat. Goia eta Olano, biak batera, Ataungo kotxe elektriko horietako baten barruan ikusi genituen gero. Bateriak maiatzaren 22ra arte iraun dien, hori ikusteko dago.

Donostiako Odon Elorza jaun alkateak, berriz, bizikletan ibil- tzea du nahiago. Kasualitatea da gero. Erraza da egunkarietan buruzagi sozialista ikustea, bi gurpilen gainean pozik dabilela; hiriko bidegorrietan, aldiz, ez da bere arrastorik. Baina bere kanpainako ibilgailu ofiziala Donostialdeko Metroa izan da, dudarik gabe, oraindik existitzen ez bada ere. Ez dut pentsatu ere egin nahi zer izango den bukatzen dutenean... Egiten badu- te, noski.

Baina mugikortasun kontu hauetan Kennedy mutu utziko luketenak PP-ko kideak dira. Real Madriderik Liga irabazten due- nean Cibelesera eramaten duen autobus zuri horietako batean hasi zuten kanpaina, Gipuzkoako hiriburuan, eta geroztik bere ordezkariak lur gainean, uretan eta airean ikusi ditugu botua eskatzen. Ez da txantxa. Begiratu hemeroteca bestela. Footing egiten, Urumean piragua batera igota, motoan eta autoan pasia- tu dira Donostiako kaleetan zehar.

Alderdi txikiagoak ere ez pentsa atzera geratu direnik. Ezker Batuko kideak, Arantza Gonzalez eta Mikel Arana goierritarrak tartean, txalupa batera igota azaldu dira Pasaia badi- an. Hamaikabat alderdiko hautagaiak ere arraunean jarri zituzten trainera batera igota, ontziak ur sarrerarik zuen ala ez begiratu gabe. Aralarreko kideek, berriz, furgoneta gorriak erabili dituzte beren mezua zabaltzeko, bozgorailu eta guzti. Baten bati siesta izorratuko zioten, alajaina!

Bildu koalizioako kideek zein ibilgailu erabili duten, hori ez dakit ziur. Agian oraingo honetan denbora justuegia izan dute kanpainako berebela prestatzeko. Susmoa daukat hari mataza koloretsu horren gainean ibili direla, pirikan, alde batetik beste- ra. Nahiko lan izango zuten hari artean korapilaturik ez gera- tzen.

Frogatua geratu da gaur egun zentzu askorik ez daukala Nixon buruz amerikarrek egiten zuten galderak. Honakoak behar luke galdera: Erosiko al zenioke politikari honi bigarren eskuko autobusa, tranbia edo furgoneta? Eta bizikleta? Piragua, txalupa edo trainera? Hari mataza akaso? Datozen egunetan bigarren eskuko tramankulu franko jarriko dute salmentan...



formazio zikloak

 erdi eta goi mailako zikloak
 nekazaritza – itsas-arrantza

Aurrematrikula

ekainaren 1etik 10era

Natura lanbide?

Zatoz Itsasmendikoira!

Nekazaritza eta itsas-arrantzarekin
erlazionatutako lanbideetarako
prestakuntza praktikoa
eskaintzen dizugu.



www.itsasmendikoi.net



ERDI MAILAKO ZIKLOAK

IMK ARKAUTE
(ARABA)

- LORAZAINTZA ETA LORADENDA
- NEKAZARITZA EKOIZPEN EKOLOGIKOA

IMK DERIO
(BIZKAIA)

- LORAZAINTZA ETA LORADENDA
- NEKAZARITZA EKOIZPEN EKOLOGIKOA

IMK FRAISORO
(GIPUZKOA)

- LORAZAINTZA ETA LORADENDA
- NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZA PRODUKZIOA

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZAKO ENPRESEN KUDEAKETA ETA ANTOLAKETA

- NATURA ETA PAISAIA BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA ANTOLAKETA

- NATURA ETA PAISAIA BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA ANTOLAKETA

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

IMK PASAIA
(GIPUZKOA)

- ARRANTZA ETA ITSAS GARRAIOA
- ITSASONTZITAKO MAKINEN ETA INSTALAZIOEN OPERAZIOA, KONTROLA ETA MANTENTZE-LANAK

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- NABIGAZIO, ARRANTZA ETA ITSAS GARRAIOA
- ITSASONTZITAKO MAKINEN ETA INSTALAZIOEN IKUSKAPENA ETA KONTROLA

bozkatu


 EAJ
PNV
jakin eta egin

 Aitor Aldasoro
Beasaingo Alkatetzarako
hautagaia

 Markel Olano
Gipuzkoako Ahaldu
Nagusirako hautagaia


ONENA EMATEKO GARAIA

Beasain Beasain Beasain

Beasain

Nafarroa eta Araba arteko mugan

22.ibilbidea: Zuñiga - Ahuntzegi-Cabredo

Euri lanbro eta eguraldi kaxkarrarekin, apirilaren 12an, 39 mendizalek, Kodes mendi malkartsuak osorik zeharkatu zituzten. Arabaren eta Nafarroaren arteko mugan ibiliz, inguruko haranak eta Kantabria edo Toloño mendien ikuspegi ederrez goza daiteke.

Ibilbidea eta denborak

Zuñigatik (530 m) XIII. mendekoa den Arkijas basilizara joan ziren (570 m; 0,5 km; 15 min.). Ondoren, aldapa gogorra igoz, San Martin lautadara iritsi ziren (1.100 m; 7,5 km; 2:00). Jarraian, Costalera gailurrera igo ziren (1.234 m; 8,5 km; 2:35). Bide beretik jaitsiz, Kanpezu eta Lizarra lotzen dituen Nazar mendatera heldu ziren (1.170 m; 9,3 km; 3:45). GR-1ean aurrera eginez, Punta Redonda (1.235 m; 11,3 km; 4:10) eta La Llana lepotik barrena (1.200 m; 12,3 km; 4:30), Kodes santutegira doan bidea ezkerrean utzita, mendilerroko punturik altuena den loar gailurrera igo ziren (1.415 m; 14,7 km; 5:05). Mendebaldera hartuta, Peña Humadatik igaro ondoren (1.135 m;



Zuñiga-Cabredo bidean Costalera-ko tontorrera igotzen.

16,7 km; 5:55), Uxunari lepotik (970 m; 18,2 km; 6:30), aurrena, eta, jarraian, Sierra Txikita izeneko mendilerro magaletik barrena ibili ziren. Ondoren, Ahuntzegi mendatera jaitsi ziren (795m; 21,5 km; 7:15). Errepide honek,

Kodesko Aguilar, Cabredo eta Azuelo lotzen ditu. Ibilbidea, Aguilar harana osatzen duen Ahuntzegi herrixkan bukatu zuten (659 m; 22,6 km; 7:25). Gorabehera metatuak: igoeran: 1.010 m; jaitsieran: 880 m.

23.ibilbidea: Bernedo – Pipaon

Nafarroako lurraldea atzean utzita, eguraldi onarekin, maiatzaren 10ean, 40 mendizalek, Kantabria edo Toloño mendizerraren lehen zatia zeharkatu zuten. Etapa bikain honetan, gailur malkartsu hauetatik beraien iparraldeko zein hegoaldeko magalean dauden kolore ezberdineko lurrak ederki ikusten dira.

Ibilbidea eta denborak:

Bernedotik (710 m) irten eta berehala Okon basilizara heldu ziren (800 m; 1,1 km; 15 min.). Pagadian gora sigi-saga eginez, San Tirso basilizaren ondotik, San Tirso gailurrera iritsi ziren (1.330 m; 5 km; 1:30). Gainik gain, ertzaren alboetik, aurrera jarraitu zuten Peña del Leon izeneko gailurreraino (1.395 m; 6,8 km; 2:10). Iparraldeko joera hartuta, malkarrean behera eta pagadi baten barrena dagoen bide itxitik jaitsiz, Lagran aldeko lurrak eta Guardia eta bere ingurukoak lotzen dituen Lagran pasabidera iritsi ziren (1.210 m; 9,1 km; 3:45). Jarraian, pagadian barrena doan bidetik aldapa gogorra igo ondoren, Peña del Castillo



Bernedo-Pipaon bidean San Tirso tontorrera igotzen izen bereko basiliza parean.

gailurrera igo ziren (1.433 m; 10 km; 4:10). Berebiziko ikuspegia dago bertatik: ekialdera: Peña Alta eta La Población, urrutirago, Kodes mendilerroa. Mendebaldean, Palomaresko haitzartea. Iparralde eta hegoaldean, Arabako haranak eta herriak. Palomaresko ertzaren zailtasunak alboara utzita, Lagran mendatera itzuli ondo-

ren (1.210 m; 10,9 km; 4:40), pagadi handi baten barrena, Ega ibaiak sorbueretako bat duen Laziturriko iturrira iritsi ziren (1.050 m; 15 km; 5:30). GR-1eko arrastoei jarraituz, Lagran udalerriko Pipaon herrixkan bukatu zuten zeharkaldia (840 m; 18,5 km; 6:20). Gorabehera metatuak: igoeran: 965 m; jaitsieran: 830 m.

Bada garaia etxetik bidaltzeko!!



11ko udalekuak

1.- Ekainaren 27tik uztailaren 8ra
2.- Uztailaren 11tik 22ra

Kolonia txiki 2006/2007
4-5 urte
Kirol kolonia
6-9 urte 2002/2005
Kirol festa
10-16 urte 1995/2001
Kirol abentura
10-16 urte 1995/2001

Bazkideak
56,5 € txandako
105 bi txanda

Ez bazkideak
97,5 txandako

Zaintza zerbitzua badago

ANTZIZAR
GESTIÓN DE INSTALACIONES DEPORTIVAS
KIROL INSTALAKUNTZEN KUDEAKETA

MASQUATRO
GESTIÓN DE INSTALACIONES DEPORTIVAS
KIROL INSTALAKUNTZEN KUDEAKETA

Beasaingo udala

info.antzizar@masquatro.com

943 887 900



Bozkatu
aralar

**IREKI
BIDEA
EZKERRARI**

**BAKEARI
EUSKARARI
EUSKAL HERRIARI
POLITIKARI**



**Jon
Etxeberria**



“Gure mendizaletasun eskaintza mendi ibilian oinarritzen da batez ere, baina mendiak eskaintzen dituen beste aukera batzuk ere lantzen ditugu”

Jon Etxeberria, Lizarrusti parketxeko arduraduna da. Bolada batean itxita egon ondoren, berriturik eta asmo berriz ari da lanean Lizarrusti parketxea. Aste Santuan hasita, mendi ibilaldiak antolatzen dituzte.

Bolada batean itxita egon ondoren, bere lekua berreskuratu al du Lizarrustik? Jendea joaten al da?

Horretan ari gara ia bigarren urtea betetzera doan azken etapa honetan. Garbi dago eraberritze lanak burutzen pasa ziren hiru urte luze haietan Lizarrustik zuen martxa galdu egin zuela, baina geroz eta jende gehiago datorkigu eta zerbitzua ere egonkortua dugu. Lizarrusti bere lekua hartzen ari da bai.

Jatetxea, lo lekua... lanik gehiena zertan egiten duzue?

Jatetxean egiten dugu lanik gehien, horretan ondo ari gara eta geroz eta jende gehiago hurbiltzen zaigu. Itxi aurretik ere jate-txearen erreferentzia zuen jende gehienak, oso ondo lan egiten zuten. Ez dugu ahaztu behar ordea, Lizarrustik beste zerbitzu batzuk ere badituela eta hauek indartzen gabilta. Parke Naturalera datorren guztiak ostalaritza beharrak beteta ditu gurean eta baita informazio gunearena ere.

Zein perfiletako jendea joaten da lo egitera?

Bezero gehienak astebururako datozen mendizaleak dira. Ostiralean iritsi, bertan afaldu, lo egin eta hurrengo goizean gosalduta mendira iriten dira. Ibilaldi luzekoak edo motzekoak izan daitezke, mendian entrenatzen ari direnik ere etorri zaigu. Aralarrek eskaintzen dituen baliabideez gozatu eta arratsean izaten dira bueltan, duxatu, afaldu eta prest hurrengo egunean ere gure inguruneaz gozatzeko. Bada besterik gabe, gure inguruneak eskaintzen duen lasaitasunaren bila etortzen denik ere.

Mendi ibilaldi gidatuak ere eskaintzen dituzue. Nori zuzenduak dira?

Aste Santuan hasi ginen horretan. Formatu desberdinak eskaintzen ditugu, haur eta gurasoei zuzenduta, ibilaldi luzekoak, erraz egitekoak eta artzaintzaren mundua hobeto ezagutzeko modukoak. Guztiak hilabete bakoitzeko igande goiz jakinetan hedatzen dira. Hilero egitarau bat aterako dugu, interesa duenak jakin dezaten noiz zer dagoen.

Zer moduzko harrera izan dute?

Oraingoz ez dugu bisitari asko izan, baina gustura gaude ekimenak izan duen oihartzunarekin. Jendeak deitu du, nekazaritza-rismoek eskertu digute informazioa, eta turismo agente desberdinek zerbitzu honen beharra bazela jakinarazi digute. Uda osoan ariko gara honetan eta urrian egingo da balorazioa etorkizuneko lan ildo zehazten joateko.

‘Mendi ibilaldia Igaratzako zelaietara’. Ibilbide honetatik zer nabarmenduko zenuke?

5 orduko ibilaldi batek Aralar Parke Naturaleko toki desberdinetara zuzentzeko aukera eskaintzen digu. Igaratza dugu Aralarko gunerik esanguratsuenetarikoa bat. Besteak beste, bertatik beste hainbat lekuetara jo dezakegu. Topagune ere bada Igaratza eta bertako ermita eta babeslekua dira horren adibide. Leku zoragarria da eta urte sasoi honetan ederra dago benetan. Formatu honetako ibilaldiekin Aralarko toki berezi ugari ezagutuko ditugu.

Eta ‘Oiduegiko bordetara’ mendi ibilaldiaz?

Ibilaldi hau erraz egitekoa da. 3 ordu eta erditan Enirio, Oiduegi, Pikueta, Ondarre eta Jentillarri bezalako gune bereziak bisitatuko dira. Mendian asko ibiltzen ez den batentzat neurriko ibilaldia da desnibel eta zailtasun gutxi duelako. Ibilaldi hau hilerro errepikatuko da.

Eta ‘Akaitz Txikiko kobara’ espeleologia irteeraz?

Gure mendizaletasun eskaintza senderismoa edo mendi ibilian oinarrituko da batez ere, baina mendiak eskaintzen dituen beste aukera batzuk ere landu nahi ditugu. Espeleologia izango da horietako bat, eskalada eta antzekoekin batera. Etorkizunean ikastaro formatua ere izan dezakete ekimen hauek. Akaitz Txikin oso koba polita dugu bisitatzeko oso egokia dena eta edonork parte hartzeko modukoa.

Maiatzaren 22an, artzaintza gaitzat hartuta, mendi ibilaldia egingo duzue. Zertan datza ibilaldi hau?

Kasu honetan Joseba Insausti artzainari egingo diogu bisita. Ibilaldia eginez hurbilduko gara bere lan esparrura eta bertan bere lanaren berri emango digu: gazta nola egiten duen, zein azpiegitura dituen, artaldea, non bazkatzen duten ardiek, abarroa zer den eta abar luzea. Ziur oso interesgarria izango dela

eta artzaintza gizarteari hurbiltzeko aukera paregabe bat bezala ikusten dugu.

Aralarren ganadua dabil dagoeneko. Beste ikutu bat ematen dio horrek Aralarri?

Bai, hala da. Maiatzaren 1ean irekitzen dira larreak eta sekulako dinamismoa hartzen du mendiak data horretatik aurrera. Garai berezia da honakoa, udaberriak sekulako indarra du, dena biziberritzen hasten da eta kolore zoragarriak hartzen ditu naturak. Nire ustez mendira hurbiltzeko garairik politena da.

Zein da Lizarrusti Parketxearen helburua?

Une honetan ostalaritza zerbitzua eta informazio gunea baino ez ditu eskaintzen Lizarrustik. Barandiaran Museoarekin bat eginda Parketxe Hedatua izena hartu du eta Barandiaran Museotik bideratzen da hezkuntza programa eta dinamizazio planteamendu guztia. Gure lana ordea, haratago joan nahirik, aisialdi eskaintza hedatzekoa eta Lizarrusti inguruko baliabideak sendotzekoa da gure bizibideak etorkizuna izango badu.

Zer esango zenioke bertako txokoak eta mendiak oraindik ezagutu ez eta kanpora joaten denari?

Paraje zoragarriak ditugula hemen bertan. Kanpora joateko aukera izatea ere oso ondo dago, han eta hemen dauden baliabideak ezagutzea oso da aberasgarria, baina garrantzi handia ematen diot bertakoa ere ezagutzeari. Kontuan izan, gure iragari oso lotuta dugun lurraldea dela Aralarkoa. Gure arbasoen bizileku, ogibide eta ezinbesteko baliabidea izan da. Gure gizartea eta kultura maila handi batean bertan jorratu da bertako eragileek baldintzatuta. Orokorrean balio handia ematen diot bertako ezagutzari.

Zure gustuko Aralarko txoko bat:

Asko dira, baina bat esateko Alotzako lautada.

Mendi bat:

Ez naiz gainak egitekoa, baina oso gogoan dut Aralarrean hurbildu nintzen lehen adietako batetan Ganbo igo eta izan nuen sententzia ederra, Pardeluts aldera begira.

“Aste Santuan hasi ginen horretan. Formatu desberdinak eskaintzen ditugu, haur eta gurasoei zuzenduta, ibilaldi luzekoak, erraz egitekoak eta artzaintzaren mundua hobeto ezagutzeko modukoak”.

Frankismoaren ondorengo lehenak

Nolakoak izan ziren 1979ko udal hauteskundeak?

HERRIA	Errolda	Botoak	Indepe.	EAJ	HB	EE	PSE	PCE	Besteak
ARAMA	147	115	113 (5)	-	-	-	-	-	-
ATAUN	1.618	1.034	-	341 (4)	523 (6)	164 (1)	-	-	-
BEASAIN	8.194	5.310	-	2.704 (10)	840 (3)	623 (2)	568 (2)	234 (0)	233 (0)
EZKIO	496	410	221 (4)	188 (3)	-	-	-	-	-
GABIRIA	395	317	113 (2)	201 (5)	-	-	-	-	1 (0)
GAINTZA	142	113	113 (5)	-	-	-	-	-	-
IDIAZABAL	1.531	1.193	532 (5)	648 (6)	-	-	-	-	-
ITSASONDO	698	474	203 (4) 136 (3)	127 (2)	-	-	-	-	-
LAZKAO	3.514	2.537	847 (5)	1.172 (7)	-	-	268 (1)	115 (0)	99 (0)
LEGORRETA	1.311	1.069	348 (3)	435 (4)	-	-	-	57 (0)	222 (2)
MUTILOA	203	79	78 (7)	-	-	-	-	-	-
OLABERRIA	980	785	458 (6)	227 (2)	-	-	81 (1)	-	-
ORDIZIA	7.386	5.015		1.238 (5)	1.045 (4)	1.060 (4)	439 (1)	312 (1)	650 (2)
ORMAIZTEGI	877	702		385 (5)	133 (2)	147 (2)	33 (0)	-	-
SEGURA	1.021	800	265 (3)	522 (6)	-	-	-	-	-
ZALDIBIA	1.377	539	514 (7)	-	-	-	-	-	-
ZEGAMA	1.246	919	521 (5)	280 (3)	-	109 (1)	-	-	-
ZERAIN	234	139	137 (7)	-	-	-	-	-	2 (0)
GOIERRI	51.568	36.295 %70,38	6.240 (78)	13.927 (72)	4.571 (21)	3.358 (14)	3.653 (12)	2.066 (4)	1.830 (4)

Maiatzaren 22an udal eta foru hauteskundeak izango dira. Udalak eta Foru Aldundiak aukeratzeko aukera garaia da. Dena den, ondorengo orrialdeotan, ez dugu horietaz hitz egingo. Denboran atzera egin dugu. Frankismoaren ondorengo lehenengo udal eta hauteskundeetara jauzi egingo dugu. Garai hartako datuak ekarri ditugu gogora, botoen zenbaketa eta alkateen zerrenda. Horrekin batera, frankismo ondorengo lehenengo udaletan alkate izan ziren bi goierritar (Juan Lasa eta Joxe Martin Eskisabel) ere elkarriketatu ditugu, orduko giroa, arazoak eta kezkak zeintzuk ziren ezagutu nahian.

Frankismoaren ondorengo lehenengo udal hauteskundeak 1979ko apirilaren 3an egin zituzten. Berrogei urteko diktaduraren ondoren egoera politiko bizia zegoen Hego Euskal Herrian, eta herrietan ere izan zuen horrek bere eragina.

Ilusioa ere handia zegoen gizartean. Partehartze datuak ikusi besterik ez dago; Goierri betidanik izan da partehartze handiko eskualdea, baina aurreneko udal hauteskunde haietan, goierritarren %70ak eman zuen boza, aurrenekoz, bere udal ordezkariak aukeratzeko.

Alderdi asko

Garai hartako mugimendu politikoaren beste seinale bat, alderdi politikoen sigletan aurki daiteke. Herrietako zerrenda inependienteez gain, EAJ, HB, PSE, PCE eta Euskadiko Ezkerra aurkeztu ziren.

Baina hainbat herritan, ezkerreko alderdi txikiek ere aurkeztu zituzten zerrendak. Tartean daude ORT (Organización Revolucionaria de Trabajadores), EMK (Euskal Mugimendu Komunista) edota LKI (Liga Komunista Iraultzailea) bezala, gaur egun bitxiak egiten zaizkigun izen eta siglak.

1979ko alkateak

Arama	Joakin Mujika Tolosa	Independientea
Ataun	Ignazio Maria Aierbe Apalategi	HB
Beasain	Juan Lasa Jauregi	EAJ
Ezkio-Itsaso	Ignazio Idiakes Korta	Independientea
Gabiria	Andres Goia Telleria	EAJ
Gaintza	Pedro Zunzunegi Garmendia	Independientea
Idiazabal	Santiago Agirre Elorza	EAJ
Itsasondo	Jose Maria Iturrioz Goenaga	Independientea
Lazkao	Diego Gurrutxaga Lonbera	EAJ
Legorreta	Antonio Amondarain Esnaola	Independientea
Mutiloa	Juan Intxausti Balda	Independientea
Olaberria	Jose Maria Kerejeta Arrieta	Independientea
Ordizia	Jose Ramon Gaztañaga Arregi	EAJ
Ormaiztegi	Jose Maria Elozegi Aldanondo	EAJ
Segura	Gillermo Areizaga Intxausti	EAJ
Zaldibia	Jose Martin Eskisabel Elorza	Independientea
Zegama	Jose Telleria Telleria	Independientea
Zerain	Antonio Garcia Agirre	Independientea

Iturria: <http://www.eudel.net/aNG/eus/XXX/indice.jsp>

Goierri betidanik izan da partehartze handiko eskualdea, baina aurreneko udal hauteskunde haietan, goierritarren %70ak eman zuen boza, aurrenekoz, bere udal ordezkariak aukeratzeko.

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia	Artikulazio eta ahoko minak
Implantologia	Radiologia digital zerbitzua
Periodontzia	Eskaner digitala

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



A SEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRATZIOA

 www.txekin.net

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



kutxa



Juan Lasa
1979ko
Beasaingo alkatea

Frankismo ondorengo Beasaingo lehenengo alkatea izan zen Juan Lasa, EAJ alderdiaren izenean. 10 zinegotzi lortu zituen hauteskunde haietan EAJ-k. Ampoko gerentea zen garai hartan Lasa. Gipuzkoako Diputatua ere bai. Familiarekin batera, hiru familiak uztartu behar izan zituen beasaindarrak. Lau urte egin zituen alkate.

Garai hartako giroa eta egoera gogoratu digu beasaindarrak. “Francoren garai-ko udaletxeak bukatzen ari ziren. Jendeak nolabait bukaera bat zetorrela ikusten zuen. Agintari politikoak, sindikatuak eta Guraso Elkarteak osatzen zituzten Udalak. Franco hil aurretik Guraso Elkarteak indarra hartzen joan ziren eta hortik hasi zen mugimendua. Horren ondorenen, azkeneko momentuan

Gestorak prestatu ziren. Nire aurreko alkateak, Unzueta zenak, alde egin zuen. Guraso Elkarteak gelditu ziren, Bittor Argiñano, Ventureira... nire aurretik presidente bezala Alvarez egon zen. Hauteskundeak izango zirela-eta alkate izateko proposamena egin zidaten”.

Urtebeteko prestakuntza
Udal hauteskundeak bazeto-

zela eta, urtebete lehenago erabaki zuen Juan Lasak, Zesareo Ugarte Beasaingo EAJko buruak alkate izateko proposamena onartzea eta lan eta ardura berrirako prestakuntza lanak egiten hasi zen.

Une hartan, Ampoko gerentea zen Lasa. “Ikastola mugimenduan, La Sallen, Goierri eskolan... ere hor mugitzen nintzen”. Politikan dena den, ez zuen esperien-

tziarik. “Alderdi mailan, hauteskundeak izango zirela eta denbora berriak aurreikusten ziren. Zesareo Ugarte zen EAJko burua eta berak deitu zidan ea prestatuko ote nintzen alkate izateko. Batek baino gehiagok egin zidan proposamena eta baiezkota esan nuen. Baiezkota ematearekin batera alderdian ere sartuko nintzela erabaki nuen. Alderdiak berak antolatuta, prestatzen hasi ginen urtebete lehenago, inork ere esperientziarik ez zeukan eta. Taldea osatu genuen. Beraz, nahiz eta esperientziarik gabekoak izan, prestakuntza batekin iritsi ginen Udaletxera”. Enpresa arloan zuen esperientzia baliagarria izan zitzaiola azpimarratu du beasaindarrak.

17 zinegotzitatik 10 lortu zituen EAJ-k. “Bakoitzak geneuzkan lanak utzi gabe

“Alderdi mailan, hauteskundeak izango zirela eta, denbora berriak aurreikusten ziren. Zesareo Ugarte zen EAJko burua eta berak deitu zidan ea prestatuko ote nintzen alkate izateko”

aritu ginen. Borondate handia zegoen, baina luzaro ezin eutsi zitekeena. Gogoia eta ilusioa ikaragarriak ziren. Baina ikusten zen neurri bate-tik gorako herrietan liberatu beharra zegoela”.

Ura, arazo larria

Urte haietan, Beasainen (Lazkaon ere bai) arazorik larrienetariko bat, ur gabezia zen Juan Lasak gogoratu due-nez. “Egunean bi orduan ura ematen zen garaia izaten ziren; ordubete goizean eta ordubete arratsaldean”, gogo-ratu du beasaindarrak.

Gabirian, urtegia egiteko-tan ziren baina azkenean proiektua bertan behera gel-ditu zen. Goierrin ere ez omen zuen Beasainek lagun-tzarik handirik aurkitu. “Zaldibiako elizan, Goierrri mailako bilera bat egin zen. Hala esan zitzaigun: Beasainek etxeak bota zitza-la, zeukan uraren arabera egite-ko etxeak eta gehiagorik ez egiteko. Ez dakit hori esan zuena zaldibitarra zen ala ez. Ikusi genuen Goierrri mailan ez geneukala zer eginik eta presa Arriaranen egitea eraba-ki genuen, Goierrri osorako”.

Zaborraren kasuan ere, antzeko zerbait gertatu zela gogoratu du. “Sasietia ez zego-en oraindik. Beasainek Legorretako harrobi ingurura era-maten zuen zaborra. Osa-sunarentzat kaltegarria zen zabortegi hura. Legorretak epe bat zuen zabortegi hura ixteko. Goierrri mailan, koka-tu egin behar ziren zaborte-giak non joan. Beasainek Sasietia dagoen lekuan jartzea pentsatu zuen, nahiz eta Diputazioak beste asmo batzuk zituen”.

Bi gai hauen harira, hono-koa nabarmendu nahi izan du Lasak. “Beasain eskuzabala

izan da uraren eta zaborraren kontuan”.

Segurtasuna

Segurtasunak ere buruhauste bat baino ekarri zizkion Juan Lasari. “Aguazil batzuk bazi-tuen Beasainek baina zeukan aurrekontuarekin askorik ezin eduki. Beste segurtasun inda-rra, Guardia Zibila zen baina ia ez zen irtetzen. Biolentzi maila askoz ere gogorragoa zen eta herrian ez zegoen segurtasunik. Lapurretak asko izaten ziren. Aguazilen batek lapurren bat harrapatzen bazuen, Tolosako Epaitegira eramaten zuen. Aguazila itzu-li baino lehenago, lapurra herrian zegoen berriz. Asla zen Bake Epailea eta nola konpondu zitekeen aztertzen hasi ginen. Irtentzide onik ez genuen ikusten eta azkenean segurtasun komiteak sortu genituen. Gauean, txandaka aritzen ginen errondak egiten. Segurtasun komiteak gaueko aguazilak, herritarrek eta uda-letxekook egiten genituen txandaka. Orain ludoteka dagoen tokian zegoen kartze-la eta han sartzen genituen lapurrak”, gogoratu du.

Kultura eta euskara

Kulturan eta euskaran ere lan asko egin zutela dio. “Pausoak arlo guztietan eman ziren. Dena egiteko zegoen.

“Dena egiteko zegoen, baina ez zegoen dirurik”

Horixe aipatu digu behin eta berriz elkarrizketan Juan Lasak urte haiek gogoratzerakoan. Ondo gogoan du, 1979an, 55.000.000 pezetako aurrekontua zuela Beasaingo Udalak. “Garai hartako udaletxeek konpetentziak eduki bazituzten, baina dirurik ez zeukaten. Diputazioak lortu zitekeena oso gutxi zen, gehiena Madriden baitzegoen. Madrida joan behar izaten zen gestioak egitera. Beste giro bat ikusten zen eta Diputazioak bultzatuta eta politikoki bultzatuta, Kontzertu ekonomikoa lortu zen”.

1981ean izenpetutako Kontzertu Ekonomikoarekin egoe-ra hobetu zela dio Lasak. “Kontzertuarekin, Euskadik, diruen gestioa gerturatu zuen. Zergak biltzeaz gain, zergak ere manejatzen zituen. Udaletxeek beste planteamendu bat hasi zuten. Denaren beharra zegoen”.

Martin Ibarbia eta Elias Arrese ziren kulturako zinegotziak. Euskarari? Euskara arloan dena egiteko zegoen. Orduan ere betikoa. Batzuk gogorra-go egin nahi zuten eta beste batzuk polikiago joan nahi genuen. Nik uste, aurrerapau-soak izugarriak egin zirela”.

Partehartzea

Partehartze handia izan zen lehenengo udal hauteskunde-etan. Goierrin %70etik gorako

partehartzea izan zen. “Jende-aren ilusioa handia zen”, dio Lasak. Jendeak partehartzeko beharra zuen eta udalbatzeta-ko bitxikeria bat kontatu digu. “Plenoetan jendeak hitza edukitzea nahi zuten batzuk. Behin, 13 mozio aztertu ziren. Plenoak 12eta-rako bukatu behar izaten ziren bestela anulatuta gelditu baizitezkeen. Azkenean era-baki genuen moziorik ez sar-tzea. Gehiegizkoa zen”.

Beasaindarrak argi dauka, hautagaien ilusioa eta boron-date ona eskertu beharko luketela herritarrek, alderdi batekoa zein bestekoa izan. “Herritarren esker handia jaso beharko lukete zinegotziek. Profesionalizatu egin direla esango du norbaitek. Baina nik esango nuke, hor sartzen denak, etengabeko orduak sartzen dituela. Alderdi bate-koak zein bestekoak txalotu beharrekoak dira”.

“Segurtasun komiteak sortu eta gauean, txandaka aritzen ginen errondak egiten. Segurtasun komiteak gaueko aguazilak, herritarrek eta udaletxekook egiten genituen txandaka”

TERAPIA ALTERNATIBOEN ZENTROA

Oriamendi, 24 - Beasain

Osteopatia, Sakro-garezurreko Terapia, Masajea, Reflexologia - **Arantxa Urkia: 606 381 534**

Homeopatia, Masajea, Sakro-garezurreko Terapia, Kiropraxia - **Maite Larraza: 656 325 005**

Joxe Martin Eskisabel

1979ko Zaldibiako alkatea



1979ko apirilaren 3ko udal hauteskundeetan, Zaldibian, Independentez osatutako Asambleak Popular izeneko zerrenda aurkeztu zen. Zinegotzi guztiak, bederatzi, lortu zituzten. Asambleak Popular izan zen aurkeztu zen hautagai zerrenda bakarra. Joxe Martin Eskisabel zen zerrendaburua eta bera izan zen lau urtean alkate. Zaldibiarrek gogoratu dueenez, “ordura arte, bikarioak aukeratzen zuen alkatea. Bikarioaren gogoaren arabera aldatzen zen. Normalean, bikarioaren ingurukoa edo herriko jauntxoren bat izaten zen aukeratzen zuena”.

Eskisabelen kasuan, 26 urte zituen zaldibitarrek. Ikastolen mugimenduan, jaialdiak antolatzen aritzen zen 16 urte zituenetik.

“Langile soila nintzen. Karreradunak ere bazeuden zerrendan, baina herriak ni aukeratu ninduen”, dio Eskisabelek.

“25 izeneko zerrenda etxe guztietara banatu zen eta esan zitzairen 12 izen markatzeko. X gehienak ateratzen zituen izango ziren alkatea, alkateordea eta zinegotziak”

“Demokrazia purua”

Eskisabelen azken esaldi hori ulertzeko, zaldibiarrek zerrenda osatzeko erabilitako sistema ezagutu beharra dago. Izan ere, Independenteen zerrenda osatzeko modua berezia izan zen Zaldibian. Herri txikietarako Eskisabelek oraindik ere aldarrikatzen duen sistema: “Zaldibia beti iraultzailea izan da eta orduan ere txispa bat sortu zen. Gure ustez, Madrilek esaten zuena ez zirela hauteskunde demokratikoak eta beste era batera egitea pentsatu genuen. Onartu egin zen. Herritarrak, pertsonalki, boluntarioki apuntatu ziren. 25 izen apun-

Aintzindariak

Beasainen kasuan bezala, asko zegoen egiteko, nahiz eta dirurik ez izan. “9.000.000 pezetako aurrekontua geneukan, gastu guztietarako. Lau urtera, 120.000.000 pezetara pasatu ginen. Pentsatu zein astindua eman genion. Dirurik ez zegoen eta bilatu egin behar zen. Ikastola berria egin genuen, pilota-lekua...”, azpimarratu du Joxe Martin Eskisabelek. Zaldibiarrek gogoratu duenez, “Zaldibian izan ginen lehenak, Ikastolak eta Eskola Publikoak bat egiten”.

Telebistaren errepetidorak jarri, baserri bideak hormigoi-tu... Araztegia ere egin zuten Zaldibiako urak garbitzeko. “Aintzindariak izan ginen. Diputazioak obra piloto bezala egin zuen, guk bultzatuta”. Madrid aldera ere bidaia bat baino

gehiago egin behar izan zuten. Bitxikeria bat aipatu digu: “Goierriko alkateekin bagenuen harremana. Behin, Segurako, Zegamako eta Zeraingo alkatearekin batera, Madrida joan ginen. Medikua asko aldatzen zituzten eta Madrida joan ginen ministroarengana, medikuarekin gustura geunden lekuetan mantentzeko eskatuz. Zegamako sekretarioa ere etorri zen gurekin”.

Dirua ateratzen ere saiatzen ziren zaldibiarrek eta “Aralarren, pago landareen mintegi bat egitera iritsi ginen. Diputaziotik hasi eta Gipuzkoako herri askori saltzera ailegatu ginen pago landarea. Gero etorri zirenek, sasi hartzen utzi zuten mintegia. Teorian ekologia defenditzeak ez dit balio praktikan ez bada egiten”.

tatu ginen. Zaldibian 9 zinegotzi eta 3 ordezkotzatzen dira, 12 lagun guztira. 25 izeneko zerrenda etxe guztietara banatu zen eta esan zitzaizkien 12 izen ‘X’ batez markatzeko. ‘X’ gehienak ateratzen zituen izango ziren alkatea, alkateordea eta zinegotziak. Etxez etxe joan ginen zerrendak banatu eta jasotzera. Demokrazia purua zen hura”, azpimarratu du Joxe Martin Eskisabelek.

Otsailaren erdialderako erabakita zegoen 12 herritarreko zerrenda. Hurrengo pausoa, legeztatzea izan zen. “Herrian zerrenda bakarra zenez, ez zen arazorik izan. Politika alde batera utzi eta herriaren alde egitera joan ginen talde guztia”, gogoratu du.

Batasuna hautsi

Dena den, batasun horrek ez omen zuen askorik iraun. “1977ko amnistiarekin erbesterratu zeuden bi bazeuden zerrendan baina itxuraz ez ziren gustura sentitu, beren aldera eraman nahi zuten eta bi horiek dimititu egin zuten. Lau urtera, sistema berdina erabiltzeko proposatu nuen baina ez zuten nahi izan, interes politikoengatik. Taldetik atera ziren bi horietako bat 8 urtean alkate izan zen gero, HB bezala. Banaketa horretatik, niretzat harrezkerotik Zaldibia ez da konpondu. Harrezkerotik beti bi bloke izan dira Zaldibian”.

Alderdi politikorik ez

Ildo horretatik, 1979ko ere duari jarraituz, Eskisabelen ustez, herri txikietan ez litzateke alderdi politikorik egin behar udal hauteskundeetan. “Bildarraz, Eudeleko lehendakariari oraintxe esan berri diot hori. Gure mailako herriak hortara doaz. Ikusi

bestela Ataunen eta Idiazabalen egiten dutena. Prestatuta dagoen jendeak ez du sellu baten azpian joan nahi, ez du busti nahi eta pertsona hori ezin duzu aprobetxatu. Eta herri txikietan ez da aukera handirik izaten jende prestatua bilatzeko. Alderdien sellua kenduz gero, etekina handiagoa izango litzateke”.

Gainera, oraingo hauteskunde sistema itxia dela dio. “Talde bateko 3. edo 4. gusatuak zaizu eta beharbada beste 2.a eta 5.a, eta ezin dituzu aukeratu. Talde osoa aukeratzera behartzen zaituzte. Derrigortuta zaude talde horrek lehenengo jarri duena aukeratzera”.

Lau urte

Lau urte egin zituen Eskisabel Zaldibiako alkatez. Herriaren aldekoa lana ahalik eta ondoen egiteko, lana utzi zuen. “Gu pezetarik gabe egon ginen alkate. Lana utzi egin nuen herria ondo eramateagatik”, zehaztu du.

“Lau urtera, sistema berdina erabiltzeko proposatu nuen baina ez zuten nahi izan, interes politikoengatik. Niretzat harrezkerotik Zaldibia ez da konpondu, beti bi bloke izan dira”





ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxe: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



Iñauti Hartz Klinika

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 Zaki. KOLEGIATUA

**HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)
KIRURGIA
ORTODONTZIA - PERIODONTZIA**

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



Aizkorri-Zegama maratoiko edizio guztietan hartu du parte Koldo Urrestarazu lazkaotarrak

“Lehenengo edizioan nuen ilusio berdinarekin ateratzen naiz orain ere”

Maiatzaren 29an, Aizkorri-Zegama mendi lasterketako 10. edizioan parte hartzekoa da Koldo Urrestarazu lazkaotarra. Guillermo Pinillos zegamarrarekin batera, bera da 10 ediziotan parte hartu eta lasterketa bukatu duen goierritarra. Bost ordu-ren bueltan betetzen du 42 kilometroko ibilbidea. Iaz Ehunmilak proban ere parte hartu zuen. Aurten, Aizkorriko maratoiarekin batera, Goierriko Bi Handiak prestatzen ari da. Dena den, erlojuari askorik begiratu gabe, era batera edo bestera kirola eginez, gozatuz, zoriontsu izatea du helburu lazkaotarrak.

10 urte atzera eginez, Aizkorri-Zegama izango zen mendi lasterketen aintzindaria.

Harrezkeroztik hasi ziren hemen mendi lasterketak. Aurten uste dut 40 bat mendi lasterketa badaudela. Izugarria da hori. Apiriletik hasi eta urri erdira arte izaten dira. Izugarrizko booma dago. Aizkorri izan zen bultzatzailea. Aizkorriko maratoiari esker hasi zen jendea mendian gehiago ibiltzen eta mendi lasterketak ezagutzen.

Berezia al da Aizkorri?

Berezia ez dakit. Gustatzen zaidan proba bat da. Hemen etxean bertan dago, maratoi distantzia da (beti ibili naiz gustura distantzia horretan), parajeak zoragarriak dira entrenatzeko eta ibiltzeko. Antolaketak egiten duen esfortzua ere eskertu beharra dago. Lan handia egiten du urtero. Detaile guztiak zaintzen dituzte. Herri guztia inplikatzeko da eta dena oso ondo zainduta daukate. Ez bakarrik profesionalak direnontzat, partaide guztientzat, eta hori baloratu egiten da; behin proba bat egiten duzunean zabaldu egiten duzu inguruan. Aizkorrik hori badauka. Urtero-urtero ondo zaindu dute.

Uste dut lehenengo bi urteak herrikoiak izan zirela. Munduko zirkuituan 3. edo 4. urtean sartu zen baina ordura arte ni ilusio berdinarekin aritzen nintzen. Lehen eta orain, berdin-berdin.

Aizkorri-Zegamak lehenengo ediziotik izan du arrakasta. Sanferminetan izan zen aurrenekoa. Lehenengo bi edizioak,

“Aizkorri izan zen bultzatzailea.
Aizkorriko maratoiari esker hasi
zen jendea mendian gehiago
ibiltzen eta mendi lasterketak
ezagutzen”

“Auskalo zenbat kilometro egiten dudan urtean!”

Urtean zenbat kilometro egiten dituzu?

Auskalo! Denak apuntatuko banitu...!

Zenbat lasterketa?

Iaz 15 bat egin nituen. Aurten, dezente gutxiago egingo ditudala uste dut. Orain arte, 3 mendi lasterketetan parte hartu dut, Beasaingo Herri Lasterketan parte hartu nuen eta orain Aizkorrikoa egingo dut. Goierriko Bi Handiak egiteko asmoa ere badaukat. Irailetik aurrera, Usurbeko igoera, Ataungo Herri Lasterketa, Beriaingo Kilometro Bertikala....

Errepidean ere ibiltzen al zara?

Astegunean errepidean ibiltzen naiz normalean. Lanetik berandu samar etortzen naiz eta hemen inguruan ibiltzen naiz. Errepideko hiru lasterketa ere egiten ditut. Ikaztegietakoa, Ataungoa eta Josetxo Imaz. Aurten Beasaingoa ere gustatu zait...

uztaileko lehenengo igandean izaten zen. Izugarrizko beroa egin zigun. Lehenengo urtea zen, eta ilusioa nahi duzun guztia, baina horrelako proba bati neurria hartu gabe geunden. Gogoratzen naiz, bai ni eta bai jende asko, larri ibili ginela kalabreekin eta bukatzeko asko sufritu genuela. Baina horrela ikasten da. Nik uste dut orain neurria hartuta daukagula.

Aizkorri, egin zenuen lehenengo mendi lasterketa izan al zen?

Ez. Anaiak eta biok, Bizkaia eta Burgos artean egiten dena Galarleiz egin genuen. Oraindik ere egiten da proba hori. Maratoia da. Burgosen hasi eta Bizkaian, Zallan, bukatzen da. 1999an izan zen. Biok egin genuen proba bezala. 2000. urte inguruan ere bazen beste bat: Gasteizen hasi eta Gorbean bukatzen zen. Erdibideko proba bat zen. Lehenengo zatia errepidez eta gero mendian bukatzen zen. Hiru aldiz-edo egin nuen. Hurrengo bi urteetan mendi lasterketarik egin gabe egon nintzen eta gero Aizkorri etorri zen.

Gehienak berriak izango zineten.

Bai. Bakarren batzuk ibiliko ziren aurretik, baina gehienak berriak ginen. 90eko hamarkadan, igoerak ere izaten ziren eta han ibilitakoak baziren. Baina gehienak Aizkorriarekin hasi ginen. Katalanak zebiltzan orduan Piriniotan. Aneto proba egiten zen. Han 10 urte lehenago bazebiltzan eta ohitura bazego-

over Urraki
Bidaietan adituak

**Erreserbatu zure udako oporrak
aurrerapenez eta lortu
% 50 arteko deskontua**

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

ZEGAMA *Eskuz egindako ogi naturala*
OKINDEGIA
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore, TPT, Barandi Delicatessen.
Ordizia: Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana, Ainhoa dietetika, Noemi frutadenda. **Olaberria:** Lurdesen denda. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Idiazabal:** Joxan harategia, Eguzki dietetika. **Ormaiztegui:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda frutadenda, Ametsa harategia, Ekilore dietetika. **Urretxu:** Dia, Belarzain. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza, Apatxo, Txitxiki, Uriarte-Pinedo.

“Egunero egiten dudana idazten dut koadernoan”

Nolako entrenamenduak egiten dituzu?

Autodidakta izan naiz beti. Ez dut entrenatzailerik eduki inoiz ere. Nik jarri ditut entrenamenduak. Nahi dudanean entrena-tu dut eta nahi dudana egin dut. Eta hala egiten jarraitu nahi dut. Internetik eta aldizkarietatik informazioa ateratzen dut eta horrek asko laguntzen du. Esperientziarekin entrenamen-du modu batzuk ikasten dituzu. Konstantea izaten saiatzen naiz. Nire kasuan behintzat, sekretua, konstantzia dago. Egunero zerbait egiten dut. Korrika ez baldin bada, bizikleta, edo gimnasio pixka bat, igeri... Horrek laguntzen dizu, urtean zehar, forma bat edukitzen, oinarri bat edukitzen.

Badakit entrenatzaile batekin arituz gero, halako proba-tan, denbora hobea egingo nukeela. Baina hori ez da nire lehenetsuna. Kirola egitea, gozatzea da helburua. Batzutan ematea ere gustatzen zait, gorputzaldia probatzeko, baina normalean, kirola egin eta gozatu egiten dut.

Denbora edukiz gero, ez dut esaten entrenatzaile batekin ez nintzatekeela arituko. Baina urteetan horrela ibili naiz, eta ondo moldatzen naiz.

Gorputza ondo ezagutzen duzu orduan.

Ez dut sekula pulsometrorik erabili. Beti sensazioen arabera korrika egin izan dut. Gorputza ondo ezagutzen dut eta horren arabera ibiltzen naiz. Ez naiz oso teknologia zalea. Hori bai, egiten dudana guztia apuntatu egiten dut koadernoan. Hor ikusten dut ze entrenamendu egiten dudana.

Zenbat urteko koadernoak daukazazu?

Uff! Nik uste dut 1999an hasi nintzela egunero egiten nuena apuntatzen, eta gaur arte. Egunero, ohera sartu aurretik, idaz-ten dut. Ondo etortzen zait erreferentzi bezala edukitzeko.

en. Baina hemen nik uste Aizkorriekin estrenatu ginela jende gehiena.

Gaur egun zozketa egiten da dortsala lortzeko eta nahi duten guztiek ezin dute parte hartu. Garai hartan ez zen horrelako arazorik egongo.

Hasieran nik uste, azkeneko astean deituta ere lekua egoten zela. Uste dut 300 lagunentzako muga zegoela. Orain 450eko muga dago eta aurten 2.000 lagunek deitu dute.

Zuek pribilegioa daukazue, lekua gorde egiten dizute.

Zerbait eduki behar genuen! Antolakuntzatik hasi ziren, sari modura, urtero ateratzen ginenontzat, lekua ziurtatzen zigutela. Oraindik ere mantentzen da eta egia esanda, eskertu egiten da. Sari moduko bat bezala da. Fidelitasuna saritzen dute eta hori eskertzen da.

10. da aurten. Berezia izango al da zuretzat?

Ez pentsa. 10. edizioa tokatzen da. Nire helburua beti izaten da, ondo bukatzea, sensazio onarekin eta hurrengo urtean errepikatzeke asmoarekin bukatzea. Horri garrantzia gehiago ematen diot denborari baino, ordulariaren menpe ibiltzeari baino. Hurrengo urteei begira ez dut planteatzen. Aurtengoa egingo dut eta aurrera begira, dena ondo baldin badoa eta ilusio eta gogo berdinarekin baldin banago, aterako naiz baina ez baldin banaiz ateratzen ere ez da ezer ere pasatzen. Naturaltasunez hartu behar da. Nire burua ez dut estutzen.

Urtero denbora hobetzen joan al zara?

Ez. 2005ean egin nuen denborarik onena. Eta hortik aurrera,

beti, 5 orduko muga horretan ibiltzen naiz. Nik uste dut hori dela nire maila. Hobetu dezakedan? Bai, saiatu zaitezke, baina azken batean zenbateraino prestatzen zara, zenbateraino estu-tzen duzu burua... Ez diot hainbesteko garrantziarik ematen denborari.

Denborarik onena zein izan da?

4 ordu eta 52 minutu. Lehenengo edizioa 5 ordu eta 38 minu-tuan egin nuen eta beste guztiak, 4h50min eta 5h15min bitarte-an ibiltzen naiz.

Faktore asko egongo dira tartean ezta? Eguraldia adibidez.

Eguraldia oso-oso garrantzitsua da. Iaz, elurra eta hotza izan zen. Kontuz ibili beharreko terrenoa zegoen goian. Eta horreta-ra egokitu behar zara. Denbora egitera doana itsu-itsuan, egu-raldia ikusten duenean... eragin handia dauka bai eguraldiak.

Urtero parte hartzeko, gogoia izan eta entrenatzeaz gain, zortea ere beharko da.

Zorte handia! Ez lesionatzea adibidez. 10 edizio hauetan ez dut inolako arazorik eduki lesioei dagokienean. Alderdi horretan zortea eduki dut, baina zorte ere bilatu egin behar da. Zaindu

Katalunian 10 urte lehenago
bazebiltzan eta ohitura bazegoen.

Baina hemen nik uste
Aizkorriekin estrenatu ginela
jende gehiena.

egin behar da eta ni behintzat saiatzen naiz oso metodikoa iza-ten, egunerokotasunean zaintzen. Bai kirola egiten, bai gorpu-tza zaintzen. Estiramenduak direla... aurrendenboraldian gimna-sioa ere oso garrantzitsua da muskularki gorputza indartzeko. Pilates ere egiten dut astean bitan. Horrek ere asko laguntzen du gorputza indartzeko, flexibilitatea lortzeko. Horrek ere laguntzen du lesioak saihesten. Prebentzio bezala, niri behintzat ondo joan zait. Arina ere banaiz eta horrek ere bentaja badau-ka neurri baten.

Europa mailako txapelketa, mundu mailako txapelketa izaten hasi zenean, antzeman zenuten ezberdintasunik?

Herrikoia zenean eta Europako eta mundu mailan sartu zenean, ilusio berdinarekin joan izan naiz. Korrikalarien artean eztabai-da sana sortu zen: kanpotik nor etorriko ote zen, zein denbo-ra egingo zuten... Antolakuntzari begira positiboa izan da pres-tigioa eman dio, baina guretzat berdina da. Nik beti esaten dut: lehenengo edizioa izango balitz orain ere, aterako nintzatekee-la gustura asko. Baina polita da horrelako jendea horrela proba batean ikustea. Normalean gainera, gertuko jendea izaten da, hitz egiteko ez da arazorik izaten, jende jatorra da. Poza ere ematen dizu horrelako jendearekin egotea.

Journet korrikalari gaztea marka guztiak hausten ari da.

Ez dakit ezagutuko dugun horrelako maila daukan kirolari bat. Hain gaztea izanda gainera! Ez bakarrik Aizkorri. Distantzia luzeagotan, kilometro bertikaletan, motzetan... denean ematen du maila. Iraupen eskian ere onena da. Izugarria da Aizkorrin



Helmugara iristen 2007ko Zegama-Aizkorri mendi maratoloan.

Di da

Lasterketa bat:

Ataungo Herri Lasterketa. Hor ere 20 urte damazkit parte hartzen. Izugarri gustatzen zait.

Mendi bat:

Ettxera egingo dut, Esparru.

Entrenatzeko leku bat:

Esparrutik Lizarrustira arteko gainak.

Korrika ez den beste kirol bat:

Hainbeste daude! Iraupen eskia edo mendiko bizikleta.

Urtaro bat:

Udaberria.

Janari bat:

Entsalada on bat.

Edari bat:

Garagardo on bat.

Amets bat:

Zoriontsu izaten jarraitzea.

“Ez dut sekula
pulsometrorik
erabili. Beti
sensazioen
arabera korrika
egin izan dut.
Gorputza ondo
ezagutzen dut
eta horren
arabera ibiltzen
naiz. Ez naiz
oso teknologia
zalea”

parte hartze ikustea.

Aizkorri daukazun oroitzapenik onena zein da?

Nik uste dut oroitzapenik onena lehenengo edizioa izan zela. Gehiena sufritu nuen baina satisfakzio handiena ere orduan hartu nuen. Batez ere, behin Andraiztik behera, 11 kilometro luze dira, eta azkeneko 4-5 gerturatu zirenean eta ikusi nuenean bukatuko nuela... hunkigarria izan zen. Helmugara sartzea izugarrizko poztasuna izan zen. Horrekin gelditzen naiz. Urtero bukatzeak ere poza ematen dizu, momentu onak pasatzen ditu-

zu, txarrak ere bai. Baina lehenengo edizioarekin gelditzen naiz.

Momentu txarren bat?

Txarra-txarra, bereziki oso gauza txarrik ez daukat. Hori bai, lehenengo edizioan, horrelako lasterketei neurria hartu gabe nengoelako, kalanbreekin asko sufritu nuen. Beste urteren batean, goian, kresterioan, harriren batekin estropozu egin kolperen bat hartu eta min handiarekin egon ere bai. Baina normalean behintzat, ondo eraman izan dut.

“Astakeria hitza nire hizkuntzan ez da sartzen, baina, Ehunmilak beharbada bai, astakeria da”

Hasieran Aizkorri astakeria iruditzen zitzaigun, orain, Ehunmilak eta Goierriko Bi Handiak jarri dituzte Beasainen. Hori beste pauso bat gehiago da.

Egia da, hasieran, Aizkorri prestatzen eta egiten genuenean, astakeria hitza askotan ateratzen zela. Astakeria zela mendian horrela ibiltzea... Denborak azkenean gauzak bere lekuan jar-tzen ditu edo ez dakit, ohitu egin gara mendian distantzia horretan ibiltzen. Egiteko modukoa da. Orain bai, beste proba beldurgarri bat jarri dute Beasainen, baina nik uste dut denbo-rarekin, jende batek neurria hartuko diola eta ondo bukatze-ko moduan izango direla. Hasiera da eta horrek entrenamen-du oso luzeak egitea eskatzen du. Sakrifizio oso handia eska-tzen du. Ordu asko sartu behar dira. Iaz Ehunmilak egin nuen eta aurten Goierri Bi Handiak egingo dut, batez ere, urtero prestatzeak, denbora asko kontsumitzen dizulako. Asteburu guztietan mendian sartuta ibiltzea esan nahi du horrek. Astegunetan ere, lanetik atera eta zerbait egin behar duzu... Oso exijentea da. Goierriko Bi Handiak eramangarriagoa dela ikusten da, nahiz eta Aizkorriren bikoitza izan. Astakeria hitza nire hizkuntzan ez da sartzen, baina, Ehunmilak beharbada bai, astakeria da.

Zer moduzko esperientzia izan zen Ehunmilak?

Orokorrean, ona. Nire helburua bukatzea zen. Egin zuen egu-raldia berez, beroa baino nahiago nuen egin nuen. Baina ger-tatzen dena da, gauez euri asko egin zuela. Aralarren sartu ginenean, itxialdi edo enzerrona bat izan zen. Uztailaren 15-16a zen eta negu gordinen genbiltzala ematen zuen. Laino itxi-itxia, euri dezente, izugarritzko hotza... Zira eta kamiseta batekin zoaz, eta hainbeste ordu mendian ibilita, kalori gabe gelditzen da eta asko sufritu nuen. Hotz handia pasatu nuen. Hori izan zen gogorrena Ehunmilatan. Baina polita, zoragarria izan zen, Etxegarartetik atera nintzenean: bakar-bakarrik, Aizkorriko igoera goizeko 3etan, goizaldean Zerainen nintzen eta egunsentia oso polita izan zen. Helmugara iristea ere oso polita izan zen. Indarrarekin eta gogoarekin iritsi nintzen. Horrelako distantzia luzeko proba batean denetik pasatu lite-ke. Hori azpimarratzen dugu horrelako proba luzeetan: han-kak bezain indartsu edo indartsuago eduki behar duzula burua. Momentu txarrari buelta ematen jakin behar da. Burua engainatu egin behar da.

Bakarrik ala lagunerekin batekin nahiago duzu korrika egitea?

Nik bakarrik nahiago dut. Bakarrik entrenatzen dut. Zortea daukat koadrilakoak ere nahiko kirolariak direla eta mendian asko ibiltzen garela. Lagunekin entrenatzea ere suertatzen da. Baina gehien-gehiena bakarrik ibiltzen naiz. Oso gustura ibil-tzen naiz bakarrik. Lagunekin oso gustura baina bakarrik joa-ten naizean ere oso gustura.

Ehunmilakeko Aralarreko “itxialdi” horretan bakarrik aritu al zinen?



Ez, kasu horretan ere, anaiaren laguntza eduki nuen. Larraitzen elkartu ginen. Pixka bat lagunduko zidala esan zidan. Eskerrak! Txindokitik behera ez nuen ezer ere ikusten, erdi desorientatuta nengoen, anaiaren laguntzari esker aurrera egin nuen. Lizarrustira iritsi nintzenean, aldatzeko arropa eman zidan eta horrek ere asko lagundu zidan. Hotz-hotz eginda iritsi nintzen Lizarrustira, lasterketa uzteko irrikan.

Lizarrustitik behera jaisteko tentaziorik ez al zenuen eduki?

Momentuan autobusa egongo balitz, dudarik ez izan, jaitsiko nintzela. Etsita nengoen Lizarrustin. Behin baino gehiagotan esaten nuen utzi egin behar nuela. Baina, lehen esan dizuda-na, lagunek jarraitzeko esaten dizute eta azkenean anaiak Etxegarateraino lagundu zidan, eta behin Etxegarateraino iri-tsita, utzi? Ez da pentsatu ere! Beste 10 ordu egin nituen bakar-bakarrik helmugara arte. Etxegaraten dutxatu, jan eta atsedena hartuta, gaueko 11,30etan atera nintzen eta hurrengo goi-zeko 9:50etan iritsi nintzen. Bide guzti hori bakar-bakarrik egin nuen. Momentu txarrak pasatzen jakin behar da. Bukatu genuen eta oso gustura.

Aurten, Goierriko Bi Handiak egingo duzu beraz. 82 km.


Entrenamendu txikiagokin, nik uste dut distantzia polita dela.

Aralarren ala Aizkorri ibiltzen zara gehiago?

Beti errazago jo izan dut Aralarra. Aizkorri inguru hori ere gus-tatzen zait eta ibiltzen naiz, baina dezente gutxiago. Aizkorriko mendi maratoia prestatzeko oraindik ez dut ikutu Aizkorri inguru hori. Ez zait asko gustatzen lasterketa pasatu behar den lekuan entrenatzea. Nahiago dut Esparru eta Atxurbi inguruan ibiltzea.



**Kuttunen
babesean**



Gaitzetatik eta amesgaiztoetatik babes-
teko, Karmen Elizegi olaberritarrak
Kuttunak banatzen dizkie herrian urte-
an jaiotako haurrei, Santi Kutz egunean (maia-
tzak 3). Urteak daramatza lan honetan eta beti-
danik ezagutu izan duen ohiturari eusten dio.
89 urte ditu olaberritarrak.

Kuttun dauka izena dauka Olaberriko Eskolako Guraso Elkartek. Bere ekimenez, eta izenari omen eginez, maiatzaren 3an, Santi Kutz egunean, herrian jaiotako kuttunak emateko ekitaldia antolatzen hasi zen duela urte batzuk. Egun horretan, Karmen Elizegiren lana izaten da kuttunak jartzea.

Dena den, kuttunak jartzea ez da ohitura berria Olaberrian. Karmen Elizegi olaberritarrak urteak daramatza Elizan bedeinkatutako kuttunak banatzen. “Ez dakit noiztik etorriko den ohitura hau, nik horrela ezagutu dut eta”, dio Karmenek. 89 urte egin berriak ditu olaberritarrak.

Apaizaren ordeez

Garai batean apaizak banatzen zituen kuttunak baina garaiak aldatu egin dira. “Apaizetxearen ondoan bizi izan gara eta apaizekin harreman handia izan dugu beti. Egunen batean kanpora joaten baziren, kuttunak uzten zizkidaten inor etortzen bazen. Txiki-txikitatik egin dugu lan hori. Apaiza falta zenean nik heltzen nion lan honi, pena ematen zidan-eta galtzea. Jendea etorri egiten da oraindik ere eta apaiza asteen behin etortzen da bakarrik. Apaizak bedeinkatutako kuttunak uzten dizkit. Nik bildu eta sokatxoarekin bilduta kajatxo batean gordetzen ditut. Beste meriturik ez du. Gauza naizen bitartean

jarraituko dut. Pena da ohitura zaharrak galtzea”, azaldu du. Garai batean Arriarango San Pedro Elizan ere kuttunak banatzen zituztela azaldu du olaberritarrak.

Kuttunen babesa

Euskaraz eta latinez idatzitako papertxoak da kuttuna, A4 orriaren erdiaren neurrikoa. “Garai batean latinez zen baina gaur egun euskaraz ere jarrita dauka”, dio olaberritarrak. Elizako zigilua darama. Ohituraren arabera, gaitzetatik eta amesgaiztoetatik babesteko erabiltzen dira kuttunak.

Ohituraren arabera, “pertsonentzako zein animalientzako erabiltzen dira. Gaur egun animalia gutxiago dago etxeetan baina lehen etxeetan txerriak izan egiten ziren. Txerriak 10 ume edo izaten zituen. Bakarren batek titia igual ez zuen ondo hartuko eta txerritegian ere jarri egi-

ten zen kuttuna. Baserritarrek ikuiluan ere jartzen zuten kuttuna. Umeak ondo lo egiten ez zuela eta... batzuk ondo jartzen ziren, beste batzuk ez... bakoitzak fedea nola zeukan izango zen. Batzuk sehaskan jartzen dituzte. Zinta ere jartzen diete kolkotik zintzilik jartzeko. Burukoaren azpian ere jartzen dituzte beste batzuk. Pertsona helduak ere etortzen dira amesgaiztoak izaten badituzte”, azpimarratu du.

Olaberritarrak esan digunez, “garai batean fedea gehiago zen, orain gutxiago dago fedea. Nafarroatik ere koadrilak etortzen ziren kuttunen bila”.

Oraindik ere etortzen omen dira Nafarroatik kuttunen bila. Karmenek berak buztinarekin egindako potetxoan dauzka gordeta. “50 zentimoko limosna eskatzen da kuttun bakoitzeko”, zehaztu du.

**“Pertsonentzako zein
animalientzako erabiltzen dira
kuttunak”.**



Santi Kutz egunean, arratsaldeko 4,30etan plazan elkar-tzen dira herritarrek. Handik, Karmen Elizegiren etxera joa-ten dira, trikitilarien lagun-tzaz. Guztiak elkarrekin, eliza-raino joaten dira prozesioan. Bertan, txandan-txandan, urtean jaioetako haurrei kuttu-na jartzen die Karmenek. Esker ona adierazteko, hau-rrek lora sorta eskaintzen die Karmeni. Ondoren, ekitaldian parte hartutako haurrekin argazkia atera eta globo sorta aieratzen dute. Globoetariko batean, Olaberriko kuttuna sartzen dute. Iaz, Frantziako Nanteseraino iritsi omen ziren globoak.



Ordizia

Bardulos VI. Motoen topaketa

Maiatzak 27, ostirala:

24:00etan: Pilotalekuan, kontzertua: High Rollers (Rock-blues).

Maiatzak 28, larunbata:

19:00etan: Pilotalekuan, kontzertua: Marcos Sendarrubias and The Tomahawks (Rock).

24:00etan: Plaza Nagusian, kontzertua: Vargas Blues Band.

Maiatzak 29, igandea:

13:30ean: Sari banaketa.

Gabiria

Kultur astea

Maiatzak 22, igandea:

17:30ean: Txindata musika eskolako haurren emanaldia, saloian.

Maiatzak 24, asteartea:

17:00etan: Sukaldari ikastaroa, Osinalde elkartean.

Maiatzak 29, igandea:

11:30ean: Gipuzkoako bertsolari txapelketa, saloian.

17:30ean: Gipuzkoako bertsolari txapelketa, saloian.

Maiatzeko ekintzak

Maiatzak 20, ostirala:

18:00etan: Herri Antzokian, Jakintza Dantza Taldearen emanaldia.

Maiatzak 24, asteartea:

19:30ean: Barrena Kultur Etxean, Photoshop tailerra. Antolatzailea: Ortzadar Argazki Elkarte.

Maiatzak 28, larunbata:

20:00etan: Paella jatea Otegi-Enean. Bertso-poteoa eta bazkal osteko bertso saioa.

Maiatzak 29, igandea:

18:00etan: Barrena Kultur Etxetik, argazki irteera, Urederrera. Antolatzailea: Ortzadar Argazki Elkarte.

Maiatzak 31, asteartea:

19:30ean: Barrena Kultur Etxean, argazki tailerra: Histograma. Antolatzailea: Ortzadar Argazki Elkarte.

Ataun

Otso festa

Maiatzak 28, larunbata:

19:30ean: Lazkaoko Kantaka abesbatza eta Musikeneko Ganbara Orkestraren emanaldia, San Gregorioko Elizan.

Maiatzak 29, igandea:

Aiako Santixal jaietako dantza lehiaketa 25. urteurrenaren ospakizuna. Antolatzailea: Aia auzoko festa batzordea.

Ekainak 3, ostirala:

22:00etan: Antzerkia: 'Baginaren bakarriketak', Herri antzokian.

Erakusketa

Ekainaren 4tik 11ra:

Udaletxeko Ganbaran, 'Jentilbaratza. Gaizkileen mugan' erakusketa. Orduetgia: astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara; larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara.



GERTU
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com

Olagi Urte guztian zabalik
Sagardotegia Eguneroko menua
Jatetxea Karta
Sagardotegiko mea

© 943 88 77 26 ALTZAGA



Ataun ekinez aurrera



Herrigintza emaguzu botoa

Beasain

Maiatzeko ekintzak

Maiatzak 21, larunbata:

20:00etan: Loinatz abesbatzaren kontzertua, Andre Mari Zeruratuaren Parrokian.

Maiatzak 22, igandea:

08:00etan: Mendi irteera: Azpeitia-Xoxote.

19:00etan: Kontzertua: Klazisismotik erromantizismora. Duo Ik. Igartza jauregian.

Maiatzak 26, osteguna:

19:00etan: Irakurketa tailerra. Xabier Mendiguren idazlearekin topaketa. Euskara-Kultura sailean.

Maiatzaren 26tik 29:

18:00etan: Garagardo festa, Loinazko San Martin plaza azpian.

Maiatzak 27, ostirala:

18:30ean: Musika kalean, Gernika pasealekuko pilotalekuan. Antolatzailea, Loinatz Musika Eskola.

Maiatzak 28, larunbata:

09:30ean: Irteera, Atauna, Mintzalagunekin, Loinazko San Martin plazatik abiatuta.

19:30ean: Kantaldia, Gernikako pasealekuko pilotalekuan, Loinatz Musika Eskolak antolatuta.

Maiatzak 29, igandea:

Egun guztian zehar: Dantzari Txiki eguna.

Erakusketa

Maiatzaren 20tik 29ra:

Loinatz abesbatzaren 25. urteurreneko erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.

Beasain

Sare sozialei buruzko hitzaldia,
Udal Euskaltegian

Maiatzaren 19an, arratsaldeko 5,30etan, sare sozialei buruzko hitzaldia eskainiko du Juan Arbuluk. Informatika eta Komunikazio Teknologietako dinamizatzailea da. Udal Euskaltegiaren egoitza berrian (Zazpiturrieta, 4-behea) izango da hitzaldia, INEMko bulegoen parean.

Beasain

Garagardo azoka, maiatzaren
26tik 29ra

Loinatz jaien atariko izaten den garagardo azoka izango da Loinazko San Martin plazaren azpian, maiatzaren 26tik 29ra. BKL-ek eta Nazioen Munduak antolatu du, Udalarekin laguntzaz. 30 garagardo ezberdin dastatzeko aukera izango da. Zer jana ere egongo da. Larunbatean, batukada izango dda. Azokaren ordutegia ondorengoa da: 18:00etatik 24:00etara.

Goierri

La Serradako jardunaldiak,
Irriargi elkartearen eskutik**Maiatzak 28, larunbata:**

10:30ean: Gaia: 'Abordaje emocional desde la psicomotricidad relaciona'. Hizlaria: Arantxa Irastorza. Lazkaoko udal-txean.

ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

UDAKO MATRIKULA ZABALIK!

ERREPASOA, ERREKUPERAZIOAK
UNIBERTSITATE MAILA (MU)
INFORMATIKA IKASTAROA
IKASKETA TEKNIKAK
IKASKETA ARAZOAK, IRAKURMENA,
ULERMENA, ARRETA...
INGELERA TRINKOA

Joan Iturralde, 5 Beasain
tel.: 943 160 120
www.ikaskide.net



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

KOL. Zko: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

PSIKOLOGI KLINIKOA

 **Jose Ramon Pato Prieto**
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

 **ZUBARA**
Eraikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak,
Erreformak...

www.zubara.es
943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA




Itsasoko Alegi auzoko eskolaumeak, 1925-26 ikasturtean

Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera: Maria Ugarteburu (Zozabarro, Itsaso), Fernanda Ugarteburu (Zozabarro, Itsaso), Joxe Yugueros (Ariztizabal, Itsaso), Jesus Olanga (Atsusain, Itsaso), Florentzio Enatarriaga (Erбетatziki, Gabiria), Bittoriano Atin (Altzibar, Gabiria) eta Damiana Bidaurreta (maistra).

Erdiko ilaran: Benita Arizmendi (Agerreberri, Gabiria), Hilario Badiola (Ibiur, Itsaso), Felipa Yugueros (Ariztizabal, Itsaso), Margarita Etxezarreta (Butroa, Ormaiztegi), Mercedes Atin (Altzibar, Gabiria), Tomasa Osinalde (Uribar, Itsaso), Antonio Esnaola (Muxika, Ormaiztegi), Antonio Ugarteburu (Zozabarro, Itsaso), Ramon Ormazabal (Urruti, Gabiria), Maria Goitia (Atsusain, Itsaso), Ramon Badiola (Ibiur, Itsaso) eta Joxe Mari Maiora (Agerreberri, Gabiria).

Beheko ilaran: Blasa Badiola (Ibiur, Itsaso), Bizente Maiora (Agerreberri, Gabiria), Maria Jesus Atin (Altzibar, Gabiria), Bizente Atin (Altzibar, Gabiria), Maria Luisa Lezama (Muxika, Ormaiztegi), Maritxu Esnaola (Muxika, Ormaiztegi), Isabel Mujika (Atsusain, Itsaso), Pako Ormazabal (Urruti, Gabiria), Gregoria Goitia (Atsusain, Itsaso), Inazio Ugarteburu (Zozabarro, Itsaso), Maurizio Maiora (Agerreberri, Gabiria) eta Lorenzo Zabaleta (Jauregoena, Itsaso).



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

ZAHARRA • BERRI

IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida

620 32 62 92

943 18 03 72

aiakoerrota@terra.es

ATAUN



Eraikuntzak

Gremioen koordinaketa

Erreforma orokorrak

Teilatuak



Goierritarra aldizkariaren gehigarria

**MODA
2011
UDA**



“Gaur egun edozein momentutan erosten da arropa”

Beasaingo Imana arropa dendara joan gara udaberri-udako modaren nondik norakoak jakin nahian. Honako erantzuna eman digute: gaur egun gero eta gutxiago jarraitzen dira modaren tendentziak, baikoitzak bere estiloa bilatzen du, norbera gustura sentitzen den estiloa. Garaiak aldatu egin dira eta moda kontuak ere ildo beretik jarraitu omen du. Hori bai, jendeak joera, tendentzia edo ohitura ezberdinak hartu direla dio Imanako Imak.

Lehenik eta behin, ospakizunei itxoiten egon gabe, urteko eta asteko edozein unetan erosteko joera aipatu du Imanakoak. “Hori ez dago gaur egun. Ez dakit ona ala txarra den. Askotan pentsatzen dut gauza batzutan ilusioa ere galduta daukagula. Gaur egun arropa edozein momentutan erosten dugu eta lehen, festetan...”. Horretaz gain, beste aldaketa bat nabaritu du bea-

saindarrak. “Duela 13 urte ni honetan hasi nintzenean, hileko lehenengo hamabostaldian asko saltzen zen eta hilabete bukaera aldera gutxi. Horretaz gain, asteko egun batzutan, beti jendea ibiltzen zen: astelehen arratsaldea oso ona izaten zen, Ordizian, asteazkenetan, eta ostiraletan ere. Orain ez daukazu horrelakorik. Asteko edozein egunetan eta edozein ordutan etortzen da. Batzutan lasai-lasai egoten zara, hurrengoan ezinean zabiltza, hilabete hasieran edo bukaeran berdin saltzen da... Aldaketa handia egon da. Lana egiteko modua asko aldatu da”.

Imanakoaren ustez, horretan eragina izan du, arroparen prezioak. Gaur egun, poltsiko guztietarako arropa dagoela uste du. “Aukera handia dago, denda berri asko daude. Aukera oso handia dago, prezio ezberdinetako arropa dago aukera”.

Hori bai, gaur egungo sistemari edo modari, desabantaila

Benetako emakumeentzat IMANA arropa denda



Garagartza, 9
ORDIZIA
Tel.: 943 88 46 62

San Inazio, 6
BEASAIN
Tel.: 943 16 21 35





bat ikusten dio. "Denboraldiak aurreratu egiten dira. Dagoeneko neguko arropa jasotzen ari gara. Abuztuan beharbada ez dago udako jantzirik. Gure kasuan ez diot zentzu handirik ikusten. Hiriburuetan beharbada, turismoa dagoen lekuan, gehiago animatuko da, normalagoa iruditzen zait, baina hemen? Hainbeste aurreratu da, ez dakizula zein denboralditan zauden. Jendea ere galduta ibiltzen da". Ildo horretatik, bi joerako bezeroak hurbiltzen omen dira: "bi extremo daude: asko aurreratzen direnak eta datorren hilean udako gauzak jaso behar ditugun galdezka datozenak".

Imanakoaren esanetan, badago, aldatu ez den faktore bat: eguraldia. "Eguraldi ona hasten denean hasten da zalaparta. Eguraldi onak jende asko erakartzen du. Eguraldiaren eragina izugarria da; guretzat garrantzitsuenak".

Aurreikuspenak

Jendearen erantzuna zein izango den jakin gabe egin behar dituzte dendariak erosketak. "Erosketak, 6-8 hilabete aurretik egiten ditugu eta prebisio batzuekin jokatzeko dugu. Eta oso zaila da, oso-oso zaila, faktore askok eragiten baitute".

JOSUNE & KLAUDE
 ileapaindegia & edergintza
Tel.: 943 16 22 56 Iturtxo, 5 ORDIZIA

Ileapaindegia

- Ileko tratamendu guztiak
- Extentsioak
- Ileko osagarriak
- Kolore eta aukera zabala
- Ile-mozte eta kolore pertsonalizatuak

Edergintza

- Capuccini - Alquimia
- Aromaterapia tratamenduak: aurpegia eta gorputza
- Indiba berreskuratzailerak: aurpegia eta gorputza
- Depilazioa, solariuma

JOSUNE & KLAUDE
 ileapaindegia & edergintza

ttipi
 ttapa
 umeen arropa denda

orain ttipi-ttapa outleta

Santa Maria, 35 eta Santa Maria, 18
 ORDIZIA
 tel.: 943 886 901

Gaur egun gainera, ekonomia krisialdia gaineratu behar zaio aurreikuspenari. “Krisia? Nabaritu da. 2008-2009an nabaritu genuen gehiena. 2009-2010 mantendu, eta aurten ere hor gabiltza”.

Krisialdiaren ondorioz, arropa modukoagoa ekartzen ote duten galdetu diogu Imanakoari. “Guk nahiko moduko arropa daukagu baina jendeari gustatzen baldin bazaio, prezioari begiratu gabe, erosi egiten du. Probatu eta jendea gustura gelditzen bada ordaindu egiten da. Arropa merkea? Saltzen da baina izugarritzko konpetentzia dago kate handiekin eta Donostia aldera eta merkatal zentro handietara jende asko joaten da, arropa merkeagoa ekartzera”. Merkatal etxe handiei aurre egiteko modua zein den garbi dauka: “Arropa garestixeagoa bai, baina zer bait desberdinagoa ekartzea. Edo batzutan, janzteko erraza dena. Beti ondo zauden arropak edukitzea. Bakero bat pixka bat gehiago ordaintzea ez zaizu inporta bai badakizu, trote handia atera behar diozula”.

Praka gutxiago

Prakak aipatu ditugu baina azkenaldian praka gutxiago saltzen dela dio Imanakoak. Horren errua, soinekotxoaren modarena omen da. “Praka askoz ere gutxiago saltzen da. Ez da lehen adina praka saltzen. Urte batzuk badira soinekoak, legging-ekin eta galtzerdi potoloekin eramaten direnak. Lehen galtzerdi pare bat jantzten zenuen eta etxetik ateratzeko puskatuta zeuden. Orain galtzerdietan ere asko hobetu da. Moda eroso da. Hortan aldaketa handia nabaritu dut. Gustoa hartu zaio eta irauten ari da. Gustoa hartzen zaionean, iraun egiten du. Pertsona eroso bilatzen da eta ondo zaude gainera beti. Kosta egingo da kentzea eta horrek prakari min handia egin dio. Guk prakak, lehen baino gutxiago erosten ditugu”.

Haurdunentzako aukera

Gaztetxoentzako, neska zein mutilentzako arropa saltzen hasi zen duela 13 urte Imana Ordizian. Egokitzen joan da beti eta orain emakumezkoen modan espezializatu da. Hori bai, azken urteetan beste arlo bat ere lantzen du: haurdunentzako arropa. Oso gustura dago arlo honetan ere. “Haurdunaldiko arropa?



Askok aldatu da. Arropak erosoak eta politak daude. Eta bestetik, ez daukazu bolumen handiarekin joan beharrik. Lehen ematen zuen, dena tapatzea zela, lotsagarria izango balitz haurdun egotea. Orain daukazu arropak, beste momentutan jantzen duzun bezala, baina eroso zoaz. Hortik ere aldaketa handia. Oso positiboa izan da. Ni gogoratzen naiz, haurdunaldian, nik neronek moldatzen nituen niretzako arropak”, zehaztu du.



ume jantziak
puerikultura

Nafarroa etorbidea, 4 - BEASAIN
Tel.: 943 88 71 94
unanue@unanuebeasain.com

berriz

Kale Nagusia, 8
BEASAIN

Hondarribi, 25
Hondarribi, 30
DONOSTIA

ipòtx
haur eta gazteentzako moda



Hirigoien, 8 • LAZKAO • 943 08 79 12



JOSUNE
EDERGINTZA ZENTROA

Tel.: 943 882 888

E-posta: centrojosune@yahoo.es
J.M. Barandiaran plaza, 3 ORDIZIA

ZERBITZUAK

AURPEGIKO ETA GORPUTZEKO
TRATAMENTUAK

MIKROPIGMENTAZIOA

FOTODEPILAZIOA

FOTOAKNEA

MANIKURA ETA PEDIKURA

MAKILAJE BEREZIAK



KONTSULTAK:
NATUROPATA
AKUNPUNTOREA
DIETISTA

Nafarroa etorbidea, 5
Tel.: 943 16 21 10
BEASAIN

